



ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua:	IO-2015-033
Izena:	Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketaren Legearen aurreproiektua

Egilea:

Sinadura: Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Proiektuen arduraduna

Data: 2015-07-27

Onartua:

Sinadura: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa

Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Data: 2015-07-27

ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-033

Orrialdea: 2/8

Proposamena:

Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak transmisio telematiko baten bitartez eskatu du txosten bat, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa. 2015eko uztailaren 17an sartu zen transmisio hori Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan (aurrerantzean, HHABHZ).

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza (aurrerantzean, HHABHZ) honen funtzioak, besteak beste, honako hauek dira: "*Erakunde instituzionalen barne-egituraketaren, antolaketaren eta sorreraren arloko sailaren jarduerak eta erakunde horiek ezartzen dituzten xedapen orokorrak aztertu eta ebaluatzea; eta, halaber, administrazioko sail eta erakundeei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea antolaketaren eta prozeduren arloan*", **Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren** 18 c artikulua zehazten duen bezala, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 6.1f artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Gainera, 2014-2016 Berrikuntza Publikoko Planaren esparruan eta 2015eko urtarrilaren 13ko Gobernu Kontseiluaren Akordioa aplikatzeko, gardentasunaren eta gobernu onaren sustapena dagokio.

Agindu-proiektu honek honako atal hauek ditu:

- Zioen azalpen luzea; 8 idatz-zatitan justifikatzen dira egungo arauketa aldatzeko motiboak.
- Artikulu bakarra; 66 idatz-zatitan jasotzen ditu Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeari proposatutako aldaketa guztiak.
- 8 xedapen iragankor
- 2 azken xedapen

ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-033

Orrialdea: 3/8

Balioespena:

Aipatutako Lege-aurreproiektua azertu ondoren, honako hau adierazi behar da:

A) Egiturazko eta antolamenduzko alderdiei dagokienez:

Aldatu diren antolamenduzko alderdi gehienak honako hauekin daude lotuta: lanpostuak antolatzea; lanpostu horiek betetzen dituztenen administrazio-egoerak kudeatzea; egitura profesionala aldatzea, zenbait postu desagertzearen ondorioz – besteak beste, "superintendentea"rena– edo beste batzuen arauketaren ondorioz – besteak beste, "aguazila"rena edo "mugikortasun agentea"rena tokiko eremuan–; ordainsari bidezko suspergarriak sartzeari; prestakuntzako edo hautaketako prozedurak antolatzea; polizia-zerbitzua ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismoak antolatzea; emakumeen aldeko ekintza positiboetarako neurriak hartzea; barne-sustapenaren bidez edo lanbide-karrera horizontalaren bidez lanbide-karrera bizkortzen duten mekanismoak arautzea; Ertzaintzaren espezializazioaren araubidea; funtzionarioen eskubideen araubidea; diziiplina-araubidea... Halaber, Funtzio Publikoko Zuzendaritzari aztertzea dagozkion beste kontu batzuekin ere badaude lotuta –zuzendaritzak emango du derrigorrezko txosten egokia–.

Aipamen berezia behar du, antolakuntzaren ikuspuntutik, ematen duen malgutasunagatik eta arrazionaltasunagatik, udalerrri bakoitzak bere beharretara eta berezitasunetara egokitutako antolakuntza-irtenbideak aurkitu ahal izateko antolakuntzako egitura profesionalak eratzeak; horrela, udaltzainek udal-barrutitik kanpora jardun ahalko dute edo alkateek udaltzainen destinoen trukea baimendu ahalko dute, bete beharreko baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, oso positiboa da funtzioak argitzea Ertzaintzaren Batzordearen diziiplina-prozeduretan eta errehabilitazio-espedienteetan.

Azkenik, atal honetan, sortzen den organoari, "Ertzaintzaren kontrol-batzordea"ri, egin behar zaio erreferentzia, polizia-zerbitzuari dagozkion kexen tratamenduan funtzionamendua ikuskatzeko neutraltasuna eta independentzia dituen organoa den aldetik; hala ere, dagozkien agintariek jarraitzen dute beren erantzukizuna izaten.

ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-033

Orrialdea: 4/8

Organo honen bidez, Poliziaren Etikaren Europako Kodearen 61. aurreikuspenari erantzuten zaio –2001eko Europako Batzordearen gomendioa–: "*Botere publikoek poliziaren aurkako errekursoaren prozedura eraginkorrak eta inpartzialak ezarri behar dituzte*"; bai eta 62. aurreikuspenari ere: "*erantzukizunaren alde egiten duten eta herritarren eta poliziaren arteko komunikazioan eta ulermenean oinarritzen diren mekanismoak ezartzea*". Kanpo-kontrolako batzorde horrek, hain zuzen ere, OIMSP – EKINBIDEREkin batera –Ertzaintzak ematen dituen zerbitzuen kalitatea hobetzeko herritarren ekimenak jaso, aztertu eta sustatzen dituen Segurtasun Sailaren organoa–, poliziaren eta herritarren arteko elkarreragina sustatzen laguntzen du; horretarako, kexak tratatzeko mekanismoak ziurtatzen dituzte, kexak tratatzeko mekanismoak zerbitzu polizialarekiko independenteak izango direla bermatuz, herritarrek neutraltasunez eta korporatibismorik gabe tratatuko dituztelako konfiantza izan dezaten. Horrek, kontuak emateari lotuta dagoenak, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen eta 2014-2016 Berrikuntza Publikoko Planaren 1. ardatzean islatzen den gardentasunaren eta gobernu onaren filosofiarekin bat egiten du, eta gardentasunaren eta gobernu onaren inguruko C) paragrafoan aztertuko da hobeto.

B) Prozedura-alderdiei dagokienez:

Proposatutako testuak oso positiboki balioesten ditugun prozedurak sinplifikatzeko eta hobetzeko neurri ugari jasotzen ditu.

Esaterako, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademia izendatzea langile berriak sartzeko hautaketaren etengabeko organo gisa. Horrek aukera ematen du, toki-erakundeek hala agintzen badute, deialdiko prozedurak zenbait erakundek batera sustatzeko; horrela, gastuak arrazionalizatzen dira eta postu horien deialdietara aurkezten diren pertsonen denboren dedikazioa eta ahalegina murriztu egiten da; azken batean, karga gutxiago eragiten zaie administrazioari eta administratuei.

Halaber, balioespen positiboa merezi dute udal arteko lankidetzaren bidez langileen beharrak premiaz eta aldi baterako betetzeko sortzen diren mekanismoek, bai eta Ertzaintzarekin sortzen direnek ere, zerbitzu guztiei erantzun ezin zaienean.

ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-033

Orrialdea: 5/8

Era berean, aipagarria da Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak lan-poltsak eratzea, bitarteko funtzionarioak izendatzeko tokiko erakundeetarako; horrek laguntzen du baliabide publikoak arrazionalizatzen, prestakuntzako eta hautaketako prozesuak homogeneizatzen ditu eta behar besteko kalitate-maila homogeneoak bermatzen ditu EAE osorako.

46. epigrafean, honako aldaketa hau jasotzen da, baina ez dugu uste zuzena denik

"2 ter paragrafoa eransten zaio 95. artikuluari, eta honela geratzen da:

"2 ter. Espedientea egin zaion pertsonak edozein unetan ezagutu ahalko du prozeduraren izapideen egoera, hura ikusteko aukera emango baitzaio, eta egindako jardunbideen kopia lortu ahalko du, betiere ez bazaizkio lehendik eman. Nolanahi ere, baliabide elektronikoen bidez ere bidali ahalko zaizkio."

Kongresuak uztailaren 21ean onetsitako Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Lege-proiektuak, dagoeneko Senatuan dagoenak – datozen hiletan onesteko aukera guztiak ditu–, honako hau ezartzen du: administrazio-prozedurak elektronikoa izan beharko du, erabat; horretara, ekainaren 22ko 11/2007 Legea, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa, indargabetzen da. Horrela ulertzen da izapide elektronikoak ez duela izan behar prozedurak kudeatzeko modu berezia, baizik eta administrazioek jarduteko izan behar duten ohiko bidea; izan ere, paperik gabeko administrazio batek hobeto erantzuten die eraginkortasunaren eta efizientiaren printzipioei, kostuak aurrezteari eta interesdunen bermeak sendotzeari. Erregistro eta artxibo elektroniko batek dokumentuen kontrolaren eta segurtasunaren berme hobeak eskaintzen ditu; gainera, gardentasunaren baldintzak errazago betetzen dira, interesdunei informazio zehatza eta eguneratua ematen baitzaie.

Horrek esan nahi du administrazio-prozedurak hasteko, antolatzeko, bideratzeko eta amaitzeko faseetan, baliabide elektronikoen erabilera bermatu egin behar dela eta ezinbestekoa izan behar duela, eta are gehiago barnean, langileekiko eta administrazioen eta administrazio organoen arteko harremanetan. Administrazioak dokumentuen kopiak emateko duen beharra bete dela ulertuko da, eskura jartzen direnean sarbide orokor elektronikoan edo administrazio eskudunaren egoitza elektronikoan, baliabide elektronikoen bidez bidaltzeko beharrik gabe. Beraz, proposatutako aldaketa hori zuzendu behar da.

ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-033

Orrialdea: 6/8

Bestalde, baina zentzu berean, sortuko den organoarekin lotuta –"Ertzaintzaren kontrol-batzordea"–, esan beharra dago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Lege-proiektu horrek honako hau jasotzen duela: "*ahal dela, deialdiak kideei baliabide elektronikoen bidez bidali behar zaizkie, eta, haietan, gai-zerrenda, bilera zer baldintzatan egingo den, konexio-sistema eta, hala badagokio, bilerara bertaratzeko eta bertan parte hartzeko beharrezko baliabide teknikoak zer lekutan dauden eskuragarri zehaztu beharko da*"; era berean, "*bilera bakoitzeko aktak igorriko dira, baliabide elektronikoen bidez*".

Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak aholkularitza eta informazioa eman ahalko dio Segurtasun Sailari, horrek hala eskatzen dionean, lege-proiektu honi dagokionez izapide elektronikoa arautzeko, antolatzeko eta ezartzeko, bai eta, oro har, administrazio-simplifikaziorako eta administrazio-kargak gutxitzeko.

C) Gardentasunarekin eta gobernu onarekin lotutako prozedurak direla eta:

Lege-aurreproiektu honen zioen azalpen luzeak agerian uzten du Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen gardentasunaren eta gobernu onaren filosofiarekin bat egiten duela; Berrikuntza Publikoaren Planaren 1. ARDATZean zehaztu zen Jaurlaritzaren filosofia hori, Poliziaren Etikaren Europako Kodean ezarritakoarekin bat.

Zehazki, balioespen positiboa egiten da gai hauen inguruan:

- herritarren arteko harremana eta "kontu ematea"rekiko konpromisoa sendotzea, publizitate aktibo egokiaren bidez.
- polizia-zerbitzua ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismoak, besteak beste, ertzainen zeregina ebaluatzeko mekanismoak edo, neurri hertsatzaileez gainera, prestakuntzan edo prozeduretan edo lan-giroan hobekuntzak emateko ereduak eta arrisku-faktoreak aztertu ahal izateko prebentzio-mekanismoen ezarpena.
- poliziaren eta herritarren arteko derrigorrezko interakzioa, kexak tratatzeko mekanismoak zerbitzu polizialarekiko independenteak izango direla bermatuz, herritarrek neutraltasunez eta korporatibismorik gabe tratatuko dituztelako

ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-033

Orrialdea: 7/8

konfiantza izan dezaten, kanpo-kontrolako batzorde baten sorrerarekin sendotuta.

Zehazki, gardentasuna dela eta, positiboki balioesten da honako aurreikuspen hau:

- *"Publizitatea emango zaie Ekinbidek kexei buruz egindako ebazpen-txostenei, datu pertsonalen edo legez konfidentzialtasuna edo erreserba gorde behar duten bestelako datuen konfidentzialtasuna errespetatuz".*
- *Kontrol Batzordeari buruzko publizitatea eta zabalkundea egingo da, haren izatearen, funtzioen, funtzionamenduaren eta lanaren berri emanez. Kontrol Batzordeak bere jarduerari buruzko txosten bat egingo du, bi urterik behin, eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio."*

baina publizitate horrek, Eusko Legebiltzarrari ez ezik, herritarrei ere egon beharko du zuzenduta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen filosofian eta, baita ere, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legearen filosofian jasotzen den bezala. Bi lege horien espirituak informazio publikoa berrerabiltzeko aukera ematen duten formatuetan argitara dadin sustatzera bultzatzen du, arauak sarbiderako ezartzen dituen mugak aplikatuz, behar bezala justifikatuta, eta, betiere, kasu zehatz bakoitzera egokituta, interes publiko edo pribatu batekin batera doazenean. Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako bat da datu publikoak irekitzea; hori dela eta, sortzen den edozein datu-basetan, kexak hartzeko eta ebazteko eta prebentzio-neurriak hartzeko zerbitzu honen kasuan bezala, datuak berrerabiltzeko legez ezarritako formatuetan argitaratu ahal izateko mekanismoak aurreikusi behar dira, betiere, datu pertsonalak, merkataritzakoak edo jabetza intelektualekoak, besteak beste, babesten direla bermatuz. Arreta handiz ibili behar da kasu horretan, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak bereziki babesten dituen datu pertsonalak direlako, eta segurtasun publikoan edo pribatuan eraginik ez izateko.

Zehazki, Poliziaren Etikaren Europako Kodeak, 19. gomendioan, honako hau ezartzen du:

ANTOLAKETA TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-033

Orrialdea: 8/8

19. Polizia-zerbitzuek herritarrei beren jardueri buruzko informazio objektiboak eman behar dizkiete, betiere, isilpeko informazioen berri eman gabe. Gidallerro profesionalak ezarri behar dira, komunikabideekiko harremanak arautuko dituztenak.

Azkenik, aipatu behar da, gehienetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzea arretaz zaindu bada ere, oraindik ere erabiltzen direla gaztelaniaz gizonezkoen termino batzuk generiko gisa, eta horiek zuzendu egin behar direla. Esate baterako: “funcionarios”, “empleados públicos”, “ciudadanos”, “el agente de movilidad”, “el alguacil”...

Ondorioak:

Apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 18 c artikulua bidez esleitutako funtzioekin bat, horiek dira antolamenduaren eta prozeduraren diseinuaren aldetik, eta, zehazki, gardentasunari eta gobernu onari lotutako aldetik, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketaren Lege-aurreproiektuari egin dizkiogun oharrak.